



1987,GO MAGDALEN GOIZA

(XABIER)

ERRENTERIARRONTZAT, bañan bereziki urteetan aurrera goazenentzat, ba dira gure zaindariaren omezez egiten diraden jaietan, berezitasun bat izaten dutenak eta berauen artean neretzako beintzat Magdalen goiza da gogorangarri eta maitien bezela gordetzen detana.

Zer dauka goiz orrek esango didazue oraingo gazte askok: erritar maitale bezela esango dizuet zein desberdiña dan festa guztietatik, patxarazko goiza pakezko eta atsegiñezkoa zuek ikusiko dezuten bezela.

Atzean gelditzen dira bezperan Centenarioren eresi alaiarekin asiera ematen zaion festa giroari bañan au ere aldatu egin digute urte batzuek dirala jendetza geiago errian bizi giralako eta lenago eskoletatik irtetzen zaneko festa asierak beste giro bat izaten zuan, orain Udal etxetik ematen zaionak polizitatuko ekintza bat dirudi eta bertan sortzen dan giroa ez da festari asiera alai bat ematekoa.

Atzean gelditzen dira ogeitabost urte osatu dituen gau erdiko Alabergako tamborradaren eresi alai eta errikoiak kaleetan zear entzungo diranak, berdin txaranga, abeslari eta gaupasatzalleak egunsentiko argiak bere egun ona kalean ematen diotena eta emen asten da nere benetako Magdalen goiza.

Berdintxoak izango dira guztiak bañan nik ezagutzen dituztenetan bi ba dira berexi nai dituztenak, bat 1936, go Españiko guda asi zanekoa eta bestea 1983, koa biak tristeak benetan, bat gudaren asierako egunak ziralako eta bertan guda otsak ziralako eta bestea bezperako egunean gertatu ziran eginkizunak estaduko indarrak medio izan ziralarik.

Argaitik joan zan urteko goizaren berri emango dizuet zuek ain bat jakin izanik oroigarri bezela egun ortako egintzak lerro auetan azaldurik.

Goiz argitzeakin batera goiz eresia Kilikariak fanfarearekin, alai benetan talde onen ekintza kaleetan zear beren umore berdin gabea azaldurik.

Ondoren or dijoaz beitoak kaleetan zear egiten dan entzierroan zezen plazara urbiltzen diralarik, gero bertan zezen festaren zale diranak azaldu dezaten beitoen aurrean beren trebetasuna Belmonte eta Manolete ziranak leiakaturik bertan bildu dan jendea beren egintzarekin far ugari egiñaz.

Festa au amaitu ondoren Udaletxetik or irten dira erraldoi eta buru aundiak tristulariak lagun dituztela beren ibilaldia egitera umetxoan pozetarako.

Amakak laurden gutxi dira eta billera egiten degu gure zaindariaren Basilikaren alboan erritik kanpo bizi diran eta bertako erritarrak otoiñtz egin ondoren bere urteroko irten aldiaren eleiz biran laguntzeko.

Ba datoz Musika taldea Txistulari eta Ereintzako dantzariak ain errikoi degun alkate soñuaren oiartzunarekin, orobat Udalbatza, bertan alderdi guztietako ordezkariak diralarik Parrokiako Batzarra ondoan dutelarik.

Dantzariak beren agurra dantzatu ondoren or abiatzen gera Magdalena lagun degula bere urteroko eliz bira egitera, musikariak urtero bezela Alberdiren «Marcha Regularen» jotzen dute eta bertan dijoaztenak barrundik ain ezaguna degun eresia au abesten degu, Magdalena kaletik igarotzen geran bitartean.

Eleiz aldera urbiltzen gera bañan bidean naiz gau pasa egiñak izan, ba dira tinko aski egoten diranak beren zaindariari agur egiñaz.

Organuaren eresiak ongi etorria ematea dio eleizara sartzen danian bertan diran eliztarrarekin batean gure zaindariari goratarre egin naican.

Jendetza ugari meza nagusian, koroan berrogei abeslari bertako koruko, Andra Mari eta Easo taldekoak osatzen zutelarik, Iñaki Goñi zuzendari bezela eta Jesus Kerejeta organo jole, Jose Maria Muñoa, Bikario jauna meza emaille eta izlari bere alboan Iztietako Bikario Juan Zubillaga eta Bikario izandako Anselmo Arrieta Ekuadorko Misioetatik oporretan etorria, berauekin amabi apaiz baterako meza emanaz.

Meza nagusiarri errikoi dan Belokeko Kanta Jaunari abeslariakin asiera eman zitzaion, V. Goikotxearen Gloria, ondoren

abestuaz jarraitzeko, Aleluya-Errikoia, J.M. Olaizolaren Credo Meza eskeintzan Riga, ren Sub Tuum Presidiun, Santus-Benedictus-Agnus Bartholomeusenak, jaunartzean Jose Olaizolaren Or Zaude Jesus, Maria Magdalenari Telletxea-Olaskoagaren ereserkiarekin bukaera emanaz, benetako meza ederra eresia ederrez bete.

Meza ondoren programan azaltzen ez dan eginkizuna, Udal Etxean beronek Jose Luis Ansorena, Andra Mari Koraleko zuzendariari omenaldia Erreterian Musikaren alde egin dituan lanak eskertuaz.

Eta Udaletzeko omenaldiaren ondoren bai jai ederra eratu ere, Erriko emparantzan eta eleiz eskallerak kioskotzaz arturik Andra Mari eta Oñarri abestaldeak, Jakintza Musikal elkarteak. Ereintzako txistulari ta dantzariakin, auek ere partaide izan nai zuten omenaldi orretan.

Berari eskeiñitako ekintzak auek izan ziran. Jose Uruñuelaren Euskal Musikaren gorespina, Goazen Mendirik Mendi abesti errikoia, Aurrezkuko Agurra V. Manso eta J. M. Lekunaren Agur Erreteriarekin amaituaz, benetan ekinaldi zoragarria urteetan zear gogoratzeke modukoa.

Eta ba goaz goiz onetako azken zatira Magdalen eguneko erestaldia entzutera, eguraldi ona izanik eta zumardian baiña obeto entzuteke lekua egonik fueroen emparantzan dagoen kioskoan beren erestaldia jo zuten J.L. Materen menpean dagozen musikariak.

Bertan jo zituzten lanak auek izandu ziran. P. Azpiauren. Guadix, J. Lavillaren Niska Suite. Princesa Amarilla Saint Seansena, F. Litzen Rapsodia Hungara nº 2 Ervitiren Centenariorekin amaitzeko eta emen bai Centenario bear zan bezela entzun genuela, zaratarik gabe, ixiltasun bereziaz barrun barruraño bere oiartzunak sartzen ziralarik.

Benetako erestaldi ederra bertako partaideak J.L. Materekin batean txalo ugariak jasoaz eta ondoren ibiltalditxo labur bat txuri batzuek eranik eguneko gertakizunak elkarren artean erabillirik, gero nor bere etxetara abiatuaz egunari dagoen bazkariari arrera on bat egitera.

Ona emen joan zan urteko neretzat festa buruko zatirik ederrena, paketsu eta alai datorren urtean itxaropenik galdu gabe, antzekoa ikusteko zoria izan dedala Jainkoa lagun.

Au ba da, urteetan aurrera goazenak egun au ikusten dugun era, ba liteke orain gazte zeratenok orrela ez ikustea eta gure ikuspenarekin ez adoz egorea, bañan urteak igaro ondoren, zuek ere guk bezela pentsako dezutela uste det.

Ez al da ederra, errikoia eta benetan maitatzekoa MAGDALEN GOIZA...